

3.3.

**GIZARTE
ONGIZATEA,
KIROLA,
HEZKUNTZA
ETA GAZTERIA**



3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

3.3.1. Gizarte-ongizatea

Gizarte Ongizate eta Kirol Alorrak erkidego solidarioagoa, orekatuagoa eta sozialki uztartuagoa lortu nahi du. Alorraren ekintzak hiru ardatz handiren inguruan multzokatuta daude: Gizarte Zerbitzuak, Kirolak eta Garapenaren aldeko Lankidetzak.

GIZARTE ZERBITZUAK

Hainbat zerbitzu eta programatan antolatuta daude: harrera-programa eta gizarte-orientazioa; hirugarren adinekoendako eta minusbaliatuendako programa; haur eta emakumeendako programa, eta gizarteratzea eta enplegua.

> HARRERA ETA GIZARTE-ORIENTAZIOA

Programa herritarrek gizarte-zerbitzuetan sartzeko atea da. Herritar guztiei zuzenduta dago eta haren helburua herritarren eskaria jasotzea da, bai eta gizarte-zailtasunei lehen erantzuna eskaintzea eta gizarte-babeserako sistemetan sartzeko bidea erraztea ere. Iruñeak, hartara, hamaika auzo-unitate ditu, eta 2009an, harrera hobetzeko plana ezarri eta, ondorioz, itxaron-denborak murriztu dira.

Programak	2006	2007	2008	2009
Auzo-unitateetan artatutakoen kopurua	18.556	20.039	23.576	25.798
Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan artatutakoen kopurua	1.285	1.428	1.644	2.091

> ETXERIK GABEKO PERTSONEN ARTA

Administrazioak etxerik gabe dauden pertsonen gizarte-beharrei erantzuteko dagoen premia gorria ikusita, Iruñeko Udala holako egoeran dauden herritarrendako baliabideak berrantolatzen ari da, ahalik eta hobekien erabiltzeko eta gutxien daukatenei bizi-kalitate hobea eskaintzeko; era berean, talde horrekiko lana hobetzeko bideak aztertzen ari da.



> Nekazaritza garapenerako proiektua, Vilcabamba ibarrean (Peru).



2009ko baliabideak eta laguntzak:

Estalpean zerbitzua, Iruñean era egonkorrean bizi eta Gizarte Zerbitzuen zirkuituen barruan txertatuak diren etxerik gabeko pertsonen zuzendua. Caparrasoren Etxea izenekoan dago, 23 lagunendako tokiak dauka, gehi beste bi toki, larrialdietarako. 2009. urtean, 227 gizon-emakumek eman dute gaua Estalpean; haietatik, 209 gizonenak izan dira (% 92), eta 18, emakumeenak (% 8). Gizonenak adina, batez beste, 39 urte izan da, eta emakumeena, 41.

Arreta, kalean programa Gizarte-bazterketa latzean dauden pertsonendako baliabidea da; oso zaila da jende hori gizarteratzea eta laguntza handi-handia eman behar izaten zaie norberaren ibilbidea eraikitzeko. Gizarte-hezitzaileen esku dago zerbitzua; zehazki, entzuketak aktiboan dihardute, halako egoeran dagoen jendea laguntzen dute beharrezkoak dituzten baliabideetara eta, azken finean, bitartekariak dira etxerik gabekoen eta gizarte-baliabideen artean. Jendeari arta ematen diote hala Iruñeko kaleetan nola 2009ko abuztuaren Telleria eta San Agustin kaleen artean zabalduetako lokal berrian. Laguntzeko kasuen kopurua 665 izan da; entzuketak aktiboak, 1.575, eta erabiltzaileak, 2009. urtean, 130 pertsona desberdin. Arta jaso dutenen % 80 gizonenak izan dira eta, gainerako % 20, emakumeenak.

Autobus-txartelen programa, kaleko hezitzaileek Telleria kaleko lokaletan banatuak. 2009. urtean, 1.180 pertsonari egin zaio arreta zerbitzu horretan. *Arreta, Kalean* programako hezitzaileek autobus-txartela banatzen dieten pertsonen ere elikagai-poltsa bat eskaintzen zaie (ogitarretakoak, zukuak...).

> ADINEKOAK ETA MINUSBALIOTASUNA

Iruñeko Udalak hainbat baliabide eskaini zizkien Iruindar adintsuen eta/edo mendekotasunean daudenei: Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasunean dauden Pertsonen Laguntzeko Programa, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ), apartamentu babestuak eta etxebizitza komunitarioak.

Hona Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasunean dauden Pertsonen Laguntzeko Programaren helburu nagusia: norberaren autonomia sustatzea, mendekotasunezko egoerei aurrea hartzea, eta laguntza ematea bere kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonen, eta era berean, mendekotasunean daudenei edo, beren ohiko ingurunean, mendekotasunean sartzeko arriskuan daudenei; halaber, helburu du, behar izanez gero, etxetik kanpoko baliabide alternatiboetan sartzeko aukera ematea, banakako, taldekako eta izaera komunitarioko artaren bidez.

- 1) **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua** udal-zerbitzu bat da eta adineko bakoitzak dituen beharren arabera zerbitzuak eskaintzen ditu, haien bizi-kalitatea hobetzeko, autonomia handitzeko eta beren ohiko ingurunean bizi daitezten. Zuzeneko laguntza eskaintzen du, gehienez bi ordu egunero, laguntza jaso behar duen pertsonaren etxean bertan; hartara, laguntza ematen diote etxeko lanetan, zainketa pertsonalean eta garbitasunean, eta gizarteratze-laguntasuna ere bai. EELZk 2.091 erabiltzaile izan ditu 2009an, eta 185.299,86 orduko aurrez aurreko laguntza eskaini die. Horrez gain, 94.762 bazkari eta 28.244 afari ere zerbitzatu zituen; arropa garbitzeko eta garraiatzeko zerbitzua eman zuen; eta material ortopedikoa, ohe artikulatuak eta garbiak banatu eta biltzeaz arduratu zen.

Programak / Zenbat onuradun	Jarduera	2006	2007	2008	2009
Estalpean programa	Okupatze-kopurua	4.835	4.816	5.464	5.039
	Segimendua	1.445	1.037	948	1.135
ONURADUNAK		115	107	165	227
Arreta, kalean	Laguntza-kopurua	372	509	627	665
	Koordinazioa	795	1.675	1.892	1.868
	Entzuketak	892	1.170	1.535	1.575
ONURADUNAK		398	427	640	665
Elikagai-poltsen eta autobus-txartelen banaketa			1.210	1.320	1.180

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

- 2) **Apartamentu babestuak** Iruñean erroldatuta dauden 65 urtetik gorako pertsonendako laguntza-baliabideak dira, betiere beren kabuz moldatzeko autonomia maila ona eta etxebizitzarekin zailtasunak dituztenak. Adinekoen beharretara moldatuta daude, auzo-ingurune batean kokatuak, eta banaka erabil daitezke edo bikoteka, eta gutxienezko zerbitzu komunitarioak ditu. 2009an, apartamentu babestuen eraikin berri bat proiektatu da Buztintxuri auzoan: 39,50 eta 42 m² arteko 65 eta 70 etxebizitza artean izanen ditu, eta etxebizitza bakoitzak trasteleku bat izanen du. Horrez gain, eraikinak ekitaldi aretoa ere izanen du, eta 130 bat lagun hartuko ditu. Eraikin hori eta Milagrosan eraikitzen ari den 25 apartamentu bikoitzeko eraikina kontuan hartuta, hirian xede bereko 6 eraikin egonen dira. Gaur egun, apartamentu babestuz osaturiko lau eraikin daude zabalik: Txoko Berri, Tulebrasko monasterioaren kalean (Donibane); Arga, Iturriotzaga plazan (Arrotxapea); Iturrama, Serafin Olave kalean (Iturrama); eta Ansoleaga (Alde Zaharra). Dagoeneko eginak dauden lau eraikinetan 119 toki daude guztira; haietako 87 apartamentu bikoitzak dira, eta 32, banakakoak.
- 3) Beren kabuz ostatu hartzeko beharra asetzeko modurik ez duten 65 urtetik gorako pertsonen, eta eguneroko bizitzaren oinarritzko beharrak estaltzeko laguntza edota laguntasun emozional/pertsonala behar dutenei, Udalak **etxebizitza komunitarioak** eskaintzen dizkie. Zehazki, adineko hainbat pertsonarendako etxebizitzak dira,

familiako bizitza-giroa ahal den neurrian sortzen dutenak, hori guztia osoko laguntzaren ikuspegian oinarritua. Sarasate pasealekukoa goitik behera berritu da.

> HAURRAK ETA EMAKUMEA

EMAKUMEA

Emakumeendako Udalaren Laguntza Zerbitzua (EULZ)

Emakumeendako Udalaren Laguntza Zerbitzua beren egoera soziala dela-eta, babes eta laguntza sozial, juridiko eta psikologiko berezia behar duten emakumezkoendako arreta osoko zerbitzua da. Besteak beste, ondoko emakumeei zuzendua dago: tratu txarren biktimei, bikote-harremanek eragindako arazoak dituztenei, eta banatzeen eta erasoek eragindako zailtasunak dituztenei. 2009an, 678 emakumeri eman zaie laguntza; haietako 337 kasu berriak dira, eta 341, aurreko urtetatik datozenak. Guztira, 2.341 hitzordu egin dira erabiltzaileekin. Emakumeendako Udalaren Laguntza Zerbitzuak programa hauek ditu:

Aukera eman zure buruari. Laguntzak dituzu. Programa hau arazo ugari bakarrik edo behar besteko laguntzarik gabe aurre egin behar izaten dieten eta hainbat arlotan -arlo pertsonalean, harremanetan, hauskortasun emozionalean, ama-trebetasunetan, gaitasunetan, etxebizitzan, lanean, prestakuntzarik ezean, baliabide ekonomikorik ezean, etab.ean- oinarritzko gabeziak dituzten emakumeei zein haien seme-alabei zuzenduta dago. Eta, beste egoera



> Próxima programako diplomak banatzeko ekitaldia



batzuen artean, indarkeria sufritzen dutenei, prostituziotik ateratzeko prozesuan daudenei edo haien ardurapean dauden adingabeendako babes hobea nahi dutenei, aitzak eragindako tratatu txarren edo sexu-abusuen zantzuak atzeman direlako. Emakume haurdunak emakume haurdunei edo lau hilabetetik beherako seme-alabak dituztenei laguntzeko programa bat da, baldintza hauetan badaude: baliabide ekonomikorik eta etxebizitza propiorik ez izatea; haurdunaldiari eta amatasunari bakardadean aurre egin behar izatea, familia- eta/edo gizarte-laguntzarik ez izateagatik; edo haurtxoa adopzioan ematea erabakitzeke prozesuan egonik, aipatu laguntzarik eta baliabiderik ez dutenak. Bi programen bidez, 2009an, guztira 39 emakumek eta 58 adingabek jaso dute laguntza; zehazki, 18 emakumek eta 35 adingabek Aukera eman zure buruari programan, eta 21 emakumek eta 23 adingabek, Emakume Haurdunak programan.

HAURRAK

Hona Gizarte-zailtasunean dauden Haur eta Nerabeei Laguntzeko Taldeen xedea: babesgabetasuneko egoera arinean eta ertainean dauden adingabeak dituzten familien kasuak ikertu, baloratu eta haietan esku hartzea; 2009an, 219 familiari eman diete laguntza, bai eta 405 adingaberi ere. Taldeko profesionalek, zehazki, familiari ezarri beharreko plana prestatzen esku hartzen dute, eta kasuan kasuko helburuak, jarduketak eta baliabideak zehazten dituzte. Era berean, hiriko haurren eta nerabeen egoera etengabe ikertu eta aztertzeaz gain, Nafarroako Gobernuak Adin Txikikoak Babesteko ataleko taldeekin elkarlanean ere aritzen dira.

Berariazko baliabide bat dauka, Familietan Esku Hartzeko Programa, haurren eta nerabeen garapena edo ongizatea eragotzen duten babesgabetasuneko egoeretan esku hartzeko; halakoetan, hezitzaile batek zuzenean eta etengabe esku hartu behar du adingabearen etxean bertan. 2009an, 104 familia artatu ditu zerbitzuak: 171 heldu eta 232 adingabe.



> Lana eta familia bateragarri egiteko zerbitzuaren jarduerak

Azkenik, Eguberrietan, jostailuak banatzeko kanpaina bat egin zen autobus-geltoki zaharrean, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen eta familien laguntzeko. 3.000 jostailu inguru banatu zieten 1.200 haurrei -hala familietan bizi zirenei nola erakundeetan hartutakoei-. Compromiso y Acción Fundazioarekin batera antolatutako jarduketa izan zen, eta Iruñeko hainbat entitatek lagundu zuten.

Zerbitzuak	2005	2006	2007	2008	2009
Haur eta nerabeendako laguntza taldeak					
Artatutako familiak		142	195	220	219
Artatutako adingabeak		237	332	412	405
Emakumeendako Udal Zerbitzua					
Arta-jarduketak (harrera eta aholku juridiko nahiz psikologikoa)	1.626	2.114	2.481	2.398	2.321
Aldi baterako ostatu-emateak, egoera berezietan	84	98	120	108	97
Artatutako kasuak, guztira		630	694	674	678
Guztira	1.710	3.221	3.822	3.812	3.720

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

> ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

A) LANTEGIESKOLAK

Iruñeko Udalak bi lantegi-eskola ditu 16 eta 24 urte arteko gazteendako, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean. Eskolek lanbide bat ikasteko eta, aldi berean, soldata bat jasotzeko aukera ematen dute. Espezialitate hauek eskaintzen dira: basogintza, soldadura, iturgintza eta eguzki-instalazio termikoak, igeltserotza, hargintza (harrian egindako zaharberritzeak) eta zura lantzeko zurgintza.

Bi urteko iraupena dute: aurreneko 6 hilabeteetan, ikasleek prestakuntza-beka bat jasotzen dute eta, behin prestakuntza-aldi hori bukatuta, kontratua egiten zaie eta lanbide arteko gutxieneko soldataren pareko lansaria jasotzen dute. 3.600 orduko prestakuntza ematen da eta, saio teorikoez gain, ikasleek beren jardunaldiaren zati bat erabiltzen dute gizarte-interesarekin lotuta dauden lanak egiten.

B) LANGABEENDAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

Lanean sartzeko zailtasunak dituzten langabeen prestakuntza sustatzeko, Udalak hainbat ikastaro eta programa eskaintzen ditu, haietako batzuk Nafarroako Gobernuarekin batera; 260 lagunek hartu dute parte ikastaroetan. 2009an, prestakuntza-ekintza hauek egin ditu:

1. Langabeendako Prestakuntza Programa.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtzak finantzatua. 2009ko deialdian, Udalak sukaldaritza-ostalaritza arloko 2 ikastaro egiteko finantzaketa lortu zuen, eta 30 lagun aritu dira horietan.

- Sinergia Programa.** Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatua. Bi urteko iraupena du; beraz, 2010ean bukatuko da. 60 parte-hartzaileak "bazterketa-arriskuan edo -egoeran" dauden taldeetan sarturik daude. 2009ko bigarren sei hilabeteetan, 3 ikastaro egin dira: 2 soldadurako espezialitatean, eta 1 sukaldaritza-ostalaritzako espezialitatean eta, guztira, 36 lagunek parte hartu dute.
- Aktiba Programa.** Estatuko eta Foru Komunitateko administrazioen artean ezarritakoaren baitan, etorkinak hartzera eta txertatzera bideratutako jarduketak garatzen dituzten toki entitateendako diru-laguntzen 2009ko deialdiaren barruan, Iruñeko Udalak 45 toki eskaini ditu hiru ikastarotan (soldadura, sukalde-laguntzailea/zerbitzaria eta iturgintza), langabeek espezialitate horietan prestakuntza jaso dezaten. Lehentasunez, etorkinen lan-prestakuntzara bideratuta zeuden. Eskolen ondotik, udal-teknikariekin laneratzeko aholkuak ematen dizkiete.
- Udalak, halaber, **prestakuntza-programa** bat bultzatzen du beste entitate batzuekin elkarlanean; esaterako, Villa Teresita, Itxaropengune, Caritas eta DUO Programa. 96 orduko iraupena du eta, sukalde-laguntzaile gisa, ezagutzak eskuratu dituzten 15 emakumeri zuzenduta dago.
- Era berean, Iruñeko **Espetxearekin** elkarlanean, lantegiak antolatzen ditu. 2009an, hauek izan ziren: jantzigintza (172 ordu), girgileria (32 ordu) eta ehun-lanak (27 ordu). Lantegi bakoitzean gehienez 10 emakume aritzen dira.

Parte-hartzaileak	2005	2006	2007	2008	2009
Prestakuntza-ikastaroak	198	188	207	165	260
Lantegi-eskola	108	102	102	102	102
Berdintasun-lantegiak	45	112	130	132	62
Parte-hartzaileak, etxetik etxeko laguntzako enplegu-lantegian	15	-	10	-	-
Guztira	366	402	449	399	324



> GIZARTERATZEA ETA ENPLEGUA

Horrez gain, Udala gogotsu ari da zailtasun handiagoak dituzten herritar-multzoek enplegua aurkitzeko duten gaitasuna hobetze aldera, haien kabuz lan-merkatura sartu ezinik dabiltzan pertsonak lanera bideratu nahian. Hartara, zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

> **Balorazio Zerbitzua.** Eratorritako eskariak jasotzen dituen atea da eta egoera bakoitzaren arabera orientazioa ematen du.

> **Lanera bideratzeko eta gizarteratzeko programa.** Oinarrizko erreferentzia-baliabidea da gizarteratzeko eta lanean sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak laguntzeko eta orientatzeko. Hartara, pertsona horien gaitasunak lantzen dira hainbat arlotan: familia, ekonomia, prestakuntza, etxebizitza, lana, etab. Hori guztia, auzo-unitateekin eta gizarteratzearen esparruan lanean ari diren entitate eta zerbitzuekin koordinaturik.

> **Gizarte-enplegua.** Udalak urtebeteko lana eskaintzen die lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonei; esaterako, prestakuntza eskaseko gazte eta helduei, gutxiengo etnikoei, egoera ekonomiko txarra duten edo gizarteratzeko eta lanera bideratzeko prozesuetan ari diren pertsonei, familia-ardurak dituzten emakumeei..., betiere bakoitzaren beharretara egokitutako ibilbide baten barruan. Egiten dituzten lanak oro hiriko bizi-kalitatea hobetzekoak dira: espaloietako zintarriak beharrezko lanak, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen irisgarritasuna hobetze aldera; diru-baliabide gutxi duten adinekoei etxebizitzak birgaitzekoak; udal-lokalak moldatzeko lanak; hiri-hornigarriak konpontzekoak; udal-alorretako lan osagarriak (koadernaketa eta serigrafia, tapizgintza, garbiketak, materialak lekualdatzeko lanak, obra txikiak...); ibaia garbitzeko lanak; lorezaintzakoak...

> **Prestakuntza Zerbitzua.** Berritasun gisa, 2009an egonkortu da parte-hartzaileen beharren zerbitzuan prestakuntza zentralizatzen duen figura. Parte-hartzaileak gaitzeko ikastaroak antolatzen dira: hurbileko zainketak mendekotasunean dauden pertsonei (Proxima Programa), elikagaiak manipulatzeko, garbiketako, lan-eskubide eta -betebeharra, oinarrizko informatika, enplegua bilatzeko, eta izaera sozio-pertsonaleko batzuk ere bai: adibidez, gizarte-trebetasunak lantzeko hainbat modulu, laguntza-taldea, etab.

> **Lan Bitartekotzako Zerbitzua.** Gizarteratze- eta enplegu-programen irteerako atea da, eta laneratzeko zein enplegua mantentzeko faseari dagokio. 2009an, berrikuntza gisara, zerbitzuan ari diren bi enplegu-teknikarietako bat enpresetan prospekzio-lanak egiten hasia da.

Programak	2006	2007	2008	2009
Lanera bideratzeko eta gizarteratzeko programa	350	250	194	380
Gizarte-enplegua	197	167	194	199
Enplegu-burtsa	--	--	357	416
Balorazio Zerbitzua	--	--	305	375
Prestakuntza zerbitzua				203

> DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

Gizarte Ongizatearen Alorrak hainbat diru-laguntza eman dizkie era askotako taldeei, 2009an zehar: adingabeei, drogazaleei, diru-baliabiderik gabeko jendeari, adinekoei, eta abarri.

Badago zailtasun ekonomikoak dituzten 65 urtetik gorako pertsonendako programa bat, zinemara dohainik joan daitezkeen. Era berean, diru-laguntzak eskaintzen ditu, hala itsuendako egokitutako zinema-saioetarako (filmekin, "audio deskribapena" teknika erabiltzen da, hau da, esatari baten offeko ahotsak zehatz-mehatz deskribatzen ditu egoerak, lekuetako gauzak, pertsonaia eta haien ekintzak, etab., gidoiak izaten ohi dituen isiluneez baliatuta), nola gorrendako egokitutako zinema-saioetarako (filmei azpigituluak jartzen zaizkie, hainbat koloretako testuak erabiltza, musika ahotsetik bereizteko eta pertsonaia bakoitzaren esaldiak desberdintzeko).

Halaber, bi antzerki-saio eskaintzen zaizkie, hiru hilabetez behin, Gaiarre Antzokian. Antzerki-saioetan, esatari batek zuzenean azaltzen die itsuei nolakoak diren agertokia, apainketa, antzezleen jantziak eta antzezlanaren ekintza. Hartara, esatariak antzezlan hori bera aurretik ikusia du eta oharra hartzen ditu, entzuten ez diren argudioaren zatiak deskribatzeko.

Beste egokitzapen-adibide bat: Udaletxean Sanferminetako programaren lau ale paratzen dira, laurak braillez idatzitakoak, itsuek Sanferminetako ekitaldi guztien orduak eta xehetasunak jakin ditzaten.

Udalak gizarteratzearen arloan egiten duen laguntza hori aitortua izan da cermi.es 2009 sariaren bidez; zehazki, Iruñeko Udalak minusbaliatuen artean enplegua sustatzeko egiten duen lan aitzindaria saritu dute, kontratazio publikoan gizarte-klausulak etengabe kontuan hartzeagatik.

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

DIRU-LAGUNTZAK, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA ELKARTEENDAKO

1) Diru-laguntzak, gizarte-ekintzako jarduerak garatzen dituzten proiektuendako.

Irabazi-asmorik gabeko entitate eta elkarteei diru-laguntzak ematea du xede, jardueren bitartez Iruñean gizarte-ekintza garatzea sustatzen duten proiektuak gauzatze aldera. 121 proiektu garatu dituzten 84 entitatek edota elkarrek jaso dute diru-laguntza, eta deialdira 483.000 euro bideratuta zeuden. Deialdia, halaber, haurrendako aisiaren eta denbora librearen esparruko prebentzio-proiektuei zuzendua dago.

Programak	2006	2007	2008	2009
Gizarte Ekintza	468.000	483.000	483.000	483.000
Haurrendako prebentzio-proiektuak, aisiaren eta denbora librearen esparruan	160.112	190.000	200.000	180.000

2) Inbertsioetarako diru-laguntzak, obrak eta erreformak egin, oztopo arkitektonikoak kendu, irisgarritasun-proiektuak landu eta lokalak zein hornigarriak erosteko.

Deialdiak 200.000 euroko aurrekontua du, eta irabazi-asmorik gabeko elkarteen eta entitateen eskariei erantzun nahi die, beren egoitzak eta jarduerak egiteko lekuak egokitzeko.

3) Hitzarmenak

Gizarte Ongizate eta Kirol Alorrak, hitzarmena sinatzearen bitartez, gizarte-intereseko proiektuak garatzen dituzten elkarte eta entitate jakin batzuentzako laguntza finkatu nahi du:

- > Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea (ADEMNA): afekzio-maila larria edo handia duten pertsonak izanik, beste pertsona batzuen laguntza behar dute eguneroko bizitzan moldatzeko; kontusaila 24.000 eurokoa da.
- > Erruki Etxea. Bi hitzarmen egin dira entitate horrekin: bata, 175.000 eurokoa, Runa parkearen orubean egindako obrak eta egokitzapen-lanak ordaintzera bideratua, bertan Sanferminetako ferianteen instalazioak jar daitezen; eta bestea, Sanferminetako ferianteen barraken barrutia lekuz eta kudeaketaz aldatu izanak sarreretan eragindako galera hein batean berdintzeko.
- > ADHI- Arreta Falta eta Hiperaktibitatea eta Inpulsibotasuna Tratatzeko eta Ikertzeko Nafar Elkartea Arreta falta, hiperaktibitate eta inpulsibotasunarekin lotuta dauden

eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murriztera bideratutako jarduketak egiteko. 26.000 euroz hornitua dago.

- > Nafarroako Elbarri Fisikoen Koordinakundea, oztopoak kentzeko aholkularitza teknikoaren zerbitzurako; aholkularitza eskaintzen du etxebizitzak egokitzeko laguntzetan eta alderdi tekniko zehatzetan. Era berean, Iruñeko egoera etengabe aztertu eta baloratzeaz arduratzen da zenbait kontutan: bide publikoak, zintarri beheratuen kokalekua zehaztea, zein egoeratan dauden, eta lokalen, eraikin publikoen eta atarien irisgarritasuna.
- > Elkarte berarekin Bono taxi programaren garapena sinatu zen, hiri-garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasun larria aitortua duten minusbaliatuek garraibide egokituak erabil dezaten.
- > Hona beste adibide batzuk: ADANO-Haur Minbizidunei Laguntzeko Nafar Elkartearekin egindako lana, Haur Minbiziaren Nazioarteko Egunaren oroitzapena egiteko, urtero Espainiako hiri batean egiten baita, eta 2009an, Iruñean egin zen. Halaber, ANAFE-CITE Fundazioarekin egindako lana, Nafarroako Kultura arteko Kontakizunen IV. Lehiaketa antolatzeko.

> LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Gizarte Ongizate eta Kirol Alorrak Familiendako diru-laguntzak ere jasotzen ditu. Izen generiko horren azpian bilduta daude Alor honetako zerbitzuek eta programek izapidetzen dituzten laguntza guztiak, krisi- eta gizarte-babesgabetasuneko egoeretan dauden pertsonen eta familien diruz laguntzeko.

- 1) Diru-laguntzak, 0 eta 12 urte arteko adingabeak dituzten familiendako, familia-, gizarte- eta lan-ardurak bateragarri egin ditzaten. 2009an, 101 familiak hartu dute diru-laguntza hau, eta haietariko 87k 0 eta 3 urte arteko haurrendako zainketa-kostea ordaintzera bideratu dute dirua, haurtzaindegian edo etxean bertan. Aurrekontua 83.952,81 eurokoa izan da.
- 2) Elikadurarako diru-laguntzak ikastetxeetan, lan-, familia-, gizarte- eta norberaren bizitza bateragarri egiteko. 1.139 laguntza eman ziren, 1.593 haurrendako. Guztira, 402.707,42 euro banatu dira.
- 3) Diru-laguntzak, gizarte-larrialdian dauden pertsonendako eta familiendako. Kontusaila 40.337,06 euro izan da.
- 4) Diru-laguntzak, gizarte-larrialdian dauden familiendako. 522 laguntza eman dira; guztira, 148.705 euro.
- 5) Errehabilitazio zentroetan egoteko diru-laguntzak, Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzaz hitzarmenean. Komunitate terapeutiko batean tratamendua jaso nahi



duten drogazaleei zuzendua, egonaldiaren kosteari aurre egiteko diru-bitartekorik izan ezean. Kontusailak 38.174 euro egiten du.

- 6) Bono taxia. Programak hiri-garraio kolektiboa erabili ezin duten pertsona ezinduei garraio egokitua eskaintzea du helburu, ezen pertsona horiek, hiri-garraio kolektiboa erabiltzeko, eta haietara sartzeko zailtasunak izaten baitituzte. Zenbatekoa 181.549 eurokoa da.
- 7) Diru-laguntza, familia ugarien seme-alaben eskola-jantokia ordaintzeko. Kontusailak 118.661,38 euro egiten du.
- 8) Lana eta familia bateragarri egiteko haur-zerbitzua.
- 9) Etxebizitzaren aldeko programa. Programak diruz laguntzen die azpi-etxebizitzan edo etxebizitza desegokian bizi, eta etxebizitza eskuratzea edo etxebizitzari eustea arriskuan jar dezakeen krisi-egoeran dauden familiei, alokairua hein batean ordain dezaten. Laguntzak gutxienez sei hilabetez irauten du eta, gehienez, bi urte. 51 familiak jaso dute dirua. Kontusaila 129.057,01 euro izan da.
- 10) Aisialdiko eta denbora libreko programa. Deialdiaren bidez, Iruñeko Udalak prebentzio- eta sustapen-jarduketak bultzatu nahi ditu haurren eta gazteen aisian eta denbora librean, betiere arlo horretan -maila komunitarioan, gizarte- eta heziketa-izaerako proiektuen bidez- ari diren taldeekin elkarlanean. Programa 180.000 euroz dago hornitua eta auzoetako ekimen komunitarioan ari diren taldeek parte hartzen dute. Hona hemen auzoak: Txantrea, Arrotxapea, Alde Zaharra, Zabalgunea, Mendillorri eta Etxabakoitz.

GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA ETA BERDINTASUNA

GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA

Garapenaren aldeko Lankidetza 1996an sortu zen eta hiru lantzerako hauek jorratzen ditu: Garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-arloko jarduerendako laguntza, Iruñean Hegoaldeko herrialdeen egoeraren inguruko eta egoera horren zio eragileen inguruko jarduerak egiteko. Halaber, laguntza ematea, Hegoaldeko gizon-emakumeen garapenerako proiektuak egiteko, betiere Iruñean finkatuak dauden GKEk gauzatutakoak, eta era berean, laguntza ematea, GKEk giza larrialdietako jarduketak egin ditzaten.

Laguntzak bi ildotan daude egituratuta: zeharkako lankidetza, diru-laguntzetarako bost deialdi publikoren bitartez eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren funtsean parte-hartuz egiten dena, eta zuzeneko lankidetza, hitzarmenen bidez.

Iruñeko Udalak bere urteko aurrekontuaren % 0,85 eskaini dio 2009an garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzari. Guztira, 2.196.120 euro izan dira, eta kontusaila bere osoan erabili da. 2009an, deialdi guztiak kontuan hartuta, 86 proiekturi eman zaie diru-laguntza, 30 herrialdetan.

Lankidetza-arloko jarduketak, geografikoki, hiru eremu handitan banatu dira, haietara diru-laguntzaren % 90 bideratzen baita: Hego Amerika, Erdialdeko Amerika-Mexiko-Karibe eta Afrika. Hego Amerikan 19 proiekturi lagundu zaie diruz eta, guztira, 679.852 euro banatu dira hainbat herrialdetan: Peru (11), Brasil (2), Argentina, Bolivia, Kolonbia, Txile, Ekuador eta Paraguai. Era berean, Erdialdeko Amerika-Mexiko-Karibeko 19 proiekturi eman zaie laguntza hainbat

Diru-laguntzen deialdia, laguntza motaren arabera. Prestazioak	2006	2007	2008	2009
Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak	93.612	100.139	141.469	148.705
Pentsioak eta otorduak ordaintzeko, ostalaritza-zentroetan	43.995	51.134	59.212	40.337
Eskola-jantokiak	248.795	349.748	392.908	402.707
Familia ugarien eskola-jantokiak				118.661
Etxebizitza programaren alokairuak	60.721	111.266	99.900	129.057
Tratamenduak errehabilitazio-etxeetan	36.893	39.212	38.174	38.174
Haurrak artatzea (0-12 urte)	53.212	51.605	83.952	83.953
Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak	190.000	200.000	200.000	180.000
Taxi bonua				181.549

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

herrialdetan, adibidez, El Salvador (6), Guatemala (6), Nikaragua (4), Honduras, Mexiko eta Dominikar Errepublika. Afrikan, 23 proiekturi eman zaie diru-laguntza, hamabi herrialdetan banatuta: Ghana (4), RASD/Sahara (3), Kongoko Errepublika Demokratikoa (3), Uganda (3), Kenya (2), Rwanda (2), Txad, Ginea Bissau, Palestina, Benin, Sierra Leona eta Somalia. Asian bi proiektu gauzatu dira; bata, Filipinetan eta, bestea, Indian.

Europar, azkenik, garapenaren aldeko sentsibilizaziori eta heziketari lotutako 23 proiekturi eman zaie laguntza. Horrez gain, Moldaviako proiektu bati eta Ukrainako beste bati eman zitzaizen diru-laguntza.

2009an, herritar onuradunen oinarritzko beharrak -hau da, ur-horniketa eta -arazketa, elikadura-segurtasuna eta

gizarte-zerbitzuak zein -azpiegiturak- asetzera bideratutako proiektuen alde egin du programak gehienbat, bai eta osoko jarduketa -garapenaren, heziketaren, osasunaren, sentsibilizazioaren aldeko osoko proiektuak- eta genero-arloko lana -emakumea eta garapena- nabarmentzen dutenen alde ere. Arlo horiek Udalak xede horretarako bideratzen duen dirutza osoaren % 81 jaso dute.

Udalak, gainera, Garapenaren aldeko Lankidetzak eta Heziketa-arloko gaiei buruzko Argibide Bulegoa mantentzeko laguntza ematen jarraitu du, hala zuzeneko arretarako bulegoa mantentzeko (GGKEen Koordinakundearen egoitzan kokatutakoa), nola hainbat informatika-tresna ezartzeko eta Koordinakundearen barne-komunikaziorako jarduerak finantzatzeko.

Lan ildoak	Jarduketak	Betetze-maila	EHUNEKOAK
Garapenaren aldeko Sentsibilizazioa eta Hezkuntza	20	131.767 euro	% 6
Garapenaren aldeko Lankidetzak	56	1.830.008 euro	% 83,3
Giza Larrialdietako Laguntza	10	104.461 euro	% 4,8
Lankidetzak Programaren Funtzionamendua	-	129.884 euro	% 5,9
Guztira	86	2.196.120 euro	% 100



>Hezkuntza-proiektua, Malin.



BERDINTASUNA

Toki ituna, gizon eta emakumeen bizitza pertsonala, familia eta lana nor bere bizitokian bateragarri egiteko

izeneko itunak lehenbiziko bilkurak egin ditu, 2009. urtean. Bilkuretan hainbat arlotako 50 entitate inguruk parte hartu dute: lanbide-elkargoek, komunikabideek, kirol-federazioek, sindikatuek, bankuek, dende eta bestek. Toki Itunaren bidez, toki entitateek bi konpromiso hartzen dituzte: alde batetik, hiriko elkarte eta entitateekin zeharka lan egitekoa, familia, lana eta bizitza bateragarri egite aldera; eta bestetik, helburu berbera duten udal-zerbitzuak eskaintzea.

Aurrekontua	2006	2007	2008	2009
Berdintasun Zinegotzigoa	459.412	483.000	503.837	577.263

Zerbitzu horien artean, 2.000. urtean, familia eta lana udako hilabeteetan, Eguberrietan eta Aste Santuan bateragarri egitekoa abiarazi zuen Udalak. Lan-ordutegiak eta seme-alabak zaintzea bateragarri egiteko zailtasunak dituzten familiei zuzendua dago eta leku bat eskaintzen die haurrak oporretan uzteko. Eguberrietan eta Aste Santuan, 3 eta 12 urte arteko haurrek hainbat jarduera, jolas eta lantegitan parte hartu zuten Iruñetik atera gabe.

2009an, orobat, Udalak 12 urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko deialdi bat egin du, lehendabiziko aldiz.

Laguntza horiek hiru zerbitzu barne hartzen dituzte 0 eta 3 urte arteko umeendako: haurtzaindegia ordaintzea, haurra etxean bertan zaintzea eta haurrak etxetik haur-eskolaraino eramatea. 3 eta 6 urte arteko familiei dagokienez, diru-laguntzen lerro bat ezarri da adingabearen edo adingabeen arduradunari etxean laguntzeko. Bestaldetik, lan-ordutegiak eraginda, 3 eta 8 urte arteko haurren arduradunek etxetik kanpo egon behar dutenerako, etxean laguntza emateko eta, ondotik, haurra ikastetxera eramateko aukera ematen da, berezko laguntza-sarerik ez badago. Azken laguntza-sorta 3 eta 12 urte arteko haurrei -bai goizez, bai arratsalde- arreta egiteko zerbitzuak ordaintzera bideratuta daude.

Tokiko Bateragarritasun Planaren arabera, Udalak diru-laguntza ematen die irabazi-asmorik gabeko 34 entitatei, gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna sustatzera bideratuta dauden 51 proiektutan. Besteak beste, gizarte- eta kultura-arloko programak diruz laguntzen ditu, emakumeek bizitzaren hainbat esparrutan duten egoeraren inguruan herritarrek kontzientzia har dezaten sustatzeko, bai eta emakumeek mendez mende egindako ekarpenen inguruan kontzientzia zabaltzen laguntzeko eta emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzeko ere. Era berean, emakumeen osasunari, bizi-kalitateari eta berariaz dituzten beharrei lotutako ekintzak laguntzen ditu, bai eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeko kanpainak edo familia, lana eta

bizitza bateragarri egitea sustatzeko kanpainak ere. Aurreko urteetan bezala, Udalak ekitaldiak antolatu ditu, emakumearendako esanahi berezia duten datak ospatzeko. Horrela, martxoaren 8aren inguruan ondokoak programatu zituen: zinema, Rosa María Calaf eta Alicia Gómez Montanoren hitzaldiak, musika-saioak -besteak beste, Rosarioren emanaldia-, erakusketak eta argazki-lehiaketa bat, emakumeek Iruñeko historian, artean, kulturen eta bizitza sozialean izan duten lekuari buruz. Azaroan, Emakumeen kontrako Indarkeria Ezabatze Eguna dela-eta, Carmen Sarmientok hitzaldi bat eman zuen; horrez gain, musika eta poesia uztartu zituen ikuskizun bat, eta **emakumeen kontrako tratu txarrak gogoetagai** esaldi-bilketarako kanpainaren laugarren edizioa egin ziren. Guztira, 219 esaldi jaso ziren, eta hauxe gelditu zen irabazle: "Emakumea, ez da erraza indarkeriaren putzu beltzetik bakarrik ateratzea, baina ezin dizut lagundu, ez badakit barruan zaudela". Egin salaketa!

2009an, halaber, Iruña tratu txarren kontra. Denon artean ekiditen ahal ditugu kanpainaren urtea izan da. Kanpainaren bidez, Udalak guztion elkarlanarekin tratu txarrak ekidin daitezkeela kontzientziatu nahi izan zituen iruindarrak. Elkarlana kanpainatik beretik hasten da, haren elementu guztiek -kartelek, biniloek, txartelek, webguneak eta iragarkiek- jendearen parte-hartzea behar baitzuten, ulertuko bazen. Adibidez, baziren iragarki batzuk eta haien gainean eranskailu bat itsasten zen, edo mupietan jarritako kartelak, ikuspuntuaren arabera aldatu egiten zirenak, edo binilo handiak, piezaz pieza destapatu beharrekoak.

Berdintasun Alorraren prestakuntza-ekintzen artean, zereginak trukatzeko ikastaroari eutsi zitzaion, oinarritzko etxe-lanetan ardurakidetzat hartzen laguntze aldera. Ikastaroa 2005ean egin zen lehenbiziko aldiz. Hala emakumeek nola gizonen, tradizioa eta estereotipoak direla medio, beste sexukoek egin izan dituzten etxeko zeregin jakin batzuei ekiteari beldurra galtzea, horra jarduera honen helburua. Horrenbestez, emakumei **etxeko konponketak** egiten ikasteko prestakuntza proposatzen zaie, eta gizonaekoei, berriz, garbiketari eta sukaldeari lotuagoak diren zereginetan jardutera bultzatzen zaie. Ikastaroek 40 ordu irauten dute.

Eta Hezkuntza eta Gazteria Alorrarekin elkarlanean, **Imajinatu** literatur lehiaketa antolatzen du. Lehiaketak ondoko gaiari buruz idaztea proposatu die ikasleei: zer gertatuko litzateke estralurtar emakumezko bat Iruñera iritsiko balitz, hark Paris 1789an bisitatu zuenez geroztik gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna nola bilakatu den jakiteko, kontuan hartuta urte hartan "Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideak" aldarrikatu zirela?

2009an, Iruñeko Udalak **Aukera Berdintasunerako II. Plana** jorratzen jarraitu du; plana arau-izaerarik gabeko tresna bat da,

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

eta herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea du xede. Hartara, zeharkako eta ekintza positiboko politikak bultzatzen ditu, gizarte-baldintzak eta -egiturak sortzen laguntzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egiazkoa eta eraginkorra izan dadin.

Compañiako Zentroa informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera zabaltzeko esparru bat da, teknologiek berdintasuna sustatzeko eta emakumea informazioaren gizartean sartzeko tresna ona direlakoan. Halaber, sentsibilizazioarako eta argibiderako esparru bat da, genero-berdintasunerako dauden baliabideen inguruan eta, oro har, emakumearendako gai interesgarrien inguruan.

Urte osoan hainbat ikastaro eskaintzen ditu, **doan** eskaini ere: ordenagailua erabiltzeko oinarritzko ezagutzak, Internet, argazkien tratamendua, bidaiak antolatzen ikastea, Interneten adingabeak babestea, webguneak diseinatzea edo joko hezigarriak, beste askoren artean. Ikastaroak lehentasunez emakumei zuzenduta badaude ere, haur, gazte eta familiendako prestakuntza ere hartzen dute kontuan. Eskola-saioek ikuspegi praktikoa izaten dute beti, benetako beharrak moldatzen laguntzeko. 2003tik hona, gainera, estuki lan egiten du Iruñeko emakume-elkarteekin eta, haiekin elkarlanean,

elkartekideendako ikastaroak diseinatu eta antolatzen ditu, guztiak ere edukietan, metodologietan eta mailetan moldatutakoak, elkartekideen beharrekin bat; batez ere, talde minusbaliatuendako edo gizarte-bazterketan erortzeko arriskuan daudenendako.

Emakumearen gaiari lotutako materialak biltzen dituzten dokumentazio-zentroak eta liburutegiak bultzatu nahian, Udalak, aurtengoan, **hitzarmen bat sinatu du IPES-Gizarte Ikerketarako Talde Eragilearekin**, bertako lokaletan dagoen Emakumeen Liburutegia-Dokumentazio Zentroa mantentze aldera eta haren jarduna bermatze aldera. Zentro horretan, bibliografia-materialak, ikus-entzunezkoak eta aldizkari espezializatuak kontsultatzeko aukera izateaz gain, liburuaren eta emakumearen inguruko jarduerak ere antolatzen dira, esaterako, emakume idazleekiko topaketak, irakurzaletasuna bultzatzekoak, eta liburuaren zein ikerlanen aurkezpenak.

Jarduerak	2006	2007	2008	2009
Compañía zentroko prestakuntza-jarduerak (informazioaren teknologia berriak)				
Emakumeak	696	682	431	611
Haurrak	236	137	130	150
Etxeko zereginak elkar trukatzeko ikastaroa	60	60	62	62
Sentsibilizazio-programa (hitzaldiak, zineforuma, lantegiak eta solas-kafeak)			500	600
Guztira	992	879	1.123	1.423

2009an, Iruñeko Udalak Berdintasunerako II. planean lanean jarraitu du. Hona arauemailea ez den tresna honen helburua: emakume eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra bermatuko duten gizarte baldintza eta egiturak sortzen laguntzea.



3.3.2. Kirola

Iruñeko Udalak kirolaren alde egiten du hainbat jarduketa-ildoren bitartez: hala nola ikastaroak, kiroldegiak mantentzeko obrak, kirol-eskolendako laguntzak, klubendako diru-laguntzak, igerilekuetan sartzeko abonu-zozketak, irteerak Argan barrena eta abar.

Udalak ikastaro hauek antolatu ditu ikasturte honetarako: mantentze-gimnastika, aerobica, helduendako igeriketa, 50 urtetik gorakoendako yoga, 65 urtetik gorakoendako jarduera fisikorako programa bat, hainbat gaixotasunek jotako pertsonendako jarduera fisikoak, 18 urtetik gorakoendako fitnessa eta areto-futbola. Guztira, 3.000 toki baino gehiago; eskatuenak mantentze-gimnastika eta aerobica dira eta, ondoren, igeriketa.

Jarduera horiek hiriko **35 instalaziotan** egiten dira. Horrela, mantentze-gimnastika eta aerobiceko saioak ondoko tokietan egiten dira: hamar ikastetxetan, sei udal-kiroldegitan, Arantzadi Kirol Hirian, Mendillorriko Trinketean eta Civivox Iturrama zentroan. Arantzadi 18 urtetik gorakoendako fitness-programaren gune nagusia da. Yoga, 50 urtetik gorakoei zuzendutakoa, Arrosadiko, Ezkabako eta Arrotxapeko kiroldegietan ematen da, bai eta Mendillorrin, Civivox Iturrama zentroan eta Arantzadin ere. 65 urtetik gorakoendako jarduera fisikoaren programa egiteko, berriz, hiriko zortzi gimnasio erabiltzen dira, bai eta Hera eta Hydra zentroak ere, ikastaroak leku horietan emanen baitira. Helduendako igeriketa-kanpaina tokiotan ematen da: San

Agustín kaleko Aquavox berria, Aquabide CAN eta Anaitasuna KKAE, Arrotxapea KKE, Guelbenzu Josteta Zentroa, Txantrea KKE eta Club Natacióneko instalazioetan.

Hainbat gaixotasunek jotako pertsonendako jarduera fisikoaren programa gimnasioetan, Arantzadiko igerileku estalian eta Runa parkean ematen da.

Ikasturte honetan, ikastaroak goizez eta arratsaldean ematen ari dira, eta prezioa 100 euro da. 1.344 matrikuletatik, 867 mantentze-gimnasiari dagozkio eta, 477, aerobici. Ikasle gehienak Donibanekoak (% 22) eta Iturramakoak (% 19) dira eta, ondotik, Arrotxapekoak (% 13) eta Azpilagañakoak (% 7).

Udalak, halaber, **Arga bizirik** programa antolatzen du, 1992. urteaz geroztik. 2009an jarduera berri bat eskaini du, Arga familiartean izenekoa, hamar lagunendako baltsa puzgarrian Arga ibaiak Iruñean dituen hainbat ur gelditan ibiltzeko: Magdalena aldean, Arrotxapeko zubian eta Biurdana parkearen inguruan. Talde bakoitzak ordubete eta hamabost minutuko ibilbidea egin zuen.

Aurreko urteetan bezala, bestalde, Iruñeko gazteek Argan behera jaisteko aukera izan dute bi lagunendako kanoetan; Larraintzarko makalditik Zamargileen ur geldiraino joan dira, Magdalenako zubia, Alemanes eta San Pedro zeharkatuta. Jaitsiera bakoitzak lau bat orduko iraupena izaten du. Guztira, 1.700 bat gaztek parte hartu dute.



>Jaitsierak kanoetan, Arga bizirik programaren baitan

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria



> Sanduzelaiko kirol-hiri berria

Udal-eskaintza honen kirol-izaeraren osagarri, argibideak ematen dira hainbat gairi buruz: ibai inguruko natura, ibaiak Iruña barruko bizitzan izan duen garrantzia, eta nola Argak hiriaren bilakaera baldintzatu duen ibaiaren beraren inguruan, eta hiriaren barrutiko ibaiaren ibilbidean egin diren hobekuntzak.

Igerilekuak eta igeriketa. Udalak, 2009an, urteko 375 abonuzozketatu ditu, Oberena Institutzioko, Txantrea KKEko eta Arrotxapea KKEko kirol-instalazioak erabiltze aldera. Abonuak jasotzeko betebeharrak bakarrik eskatzailea Iruñean erroldatua egotea da. Era berean, udako 243 abonuzozketatu dira hiru igerileku horietarako. Bi eskaera-modalitate daude: banakakoa, 14 urtetik gorakoendako eta, familiakoa, zeinean ezkontideak edo izatezko bikoteak, 14 urtetik beherako seme-alabak eta aitona-amonak sar daitezkeen.

Udalak urteko 37 **abonu doan** jarri ditu herritarren eskura Etxabakoitzeko igerilekuetarako eta, era berean, berriro udako abonuek eskaini ditu Arantzadiko eta Sanduzelaiko udal-igerilekuetan. Abonu horien prezioak 38 eta 77 euro artean daude. Udalak laginak hartzen ditu, erabilera publikoko talde-igerileku guztietako uraren kalitatea kontrolatzeko. Azterketek berretsi dute igerileku horietako uraren kalitatea oso ona dela.

Irailean, Alde Zaharreko **Aquavox**-ek ateak zabaldu zituen. Bost igerileku ditu (irakaskuntzako, igeri egiteko, jostatzeko, ur hotzeko aska eta 42°-ko spa), bi jarduerareto, muskulazio-areto bat eta terma-eremu bat, besteak beste, saunaz, bainu turkiarraz eta izotz-iturri batez osatua. Urte bukaeran, Sanduzelaiko Kirol Hiriko obrak bukatzeko zorian daude; bi igerileku izanen ditu, hidromasajerako igerileku batez hornitutako hiri-bainuetxe bat, ur-oheak, relax-eremua, tratamendurako dutxak, sauna finlandiarra, bainu turkiarra, etab.

Udaleko Kirol Eskolek jardunean diraute, gazteen artean jarduera fisikoa bultzatzeko. Hamahiru modalitatetan eskaintzen dira tokiak, 6 eta 14 urte bitarteko adingabeendako. Ikasturte osorako jardueren prezioa 50 euro da, istripuen aseguruia barne. Txirrindularitza, piraguismoa, pilota, futbito, saskibaloia, xakea, patinajea, atletismoa, eskubaloia, beisbola, waterpolo, errugbia eta mahai-tenisa eskaintzen dira. 2008-2009ko ikasturtean, 8.695 lagunek eman dute izena Udaleko kirol-eskoletan. Futbito da jendeak gehien eskatzen duena eta, gero, saskibaloia eta pilota datoz. Hiru kirol horiek izen-emateen % 75 baino gehiago hartzen dituzte. Eskola horiek Nafarroako hamahiru federazioekin eta Oberenarekin elkarlanean antolatzen dira. Kirol egokituei dagokienez, 266 lagunek eman dute izena kirol hauetan: mantentze-gimnastikan, igeriketan, saskibaloian, areto-futbolekin, atletismoan, ekitazioan, boccian eta pilotan.



Udal kanpainetan parte hartzen dutenen kopuruak	2006	2007	2008	2009
Udalarteko kirola	972	870	750	732
Eskola-igeriketa	2.712	2.702	2.325	2.362
Helduendako igeriketa	1.220	1.200	1.037	1.129
Udaleko kirol-eskolak.	8.707	8.895	8.695	8.583
Helduendako mantentze-gimnastika eta aerobica	2.238	1.918	1.563	1.461
Gimnasio pribatuetan egindako jarduerak	-	135	192	195
Guztira	15.849	15.720	14.562	14.462

Udaleko Kirol Eskolek kirol-modalitate anitzeko oinarritzko teknikak irakasten dituzte. Ikastetxeetako eskola-orduetatik kanpoko ordutegian egiten dute lan.

Zuzenean antolatutako jardueraz gain, Udalak, halaber, kirolaren sustapena eta babesa bultzatzen ditu, **laguntza-deialdien** eta hainbat **hitzarmenen** bidez. Horrela, 2009an, 173.000 euroz hornitu ditu Iruñeko kirol afizionatuarendako diru-laguntzak. Hona laguntza horien jasotzaileak: 2008-09ko denboraldian aisia-helburuekin lehiaketa-jarduerak egin dituzten kirol-talde, elkarte, klub eta kirol-elkarteei eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuei, edo auzokideei haien instalazioak erabiltzen uzten dizkieten kirol-elkarteei.

Horrez gain, laguntza ere eman die 2008-2009ko ikasturtean federazioetako liga ofizial batean parte hartu duten Iruñeko **45 talderi**, betiere, zein bere kirolean, Espainiako lehen hiru maila absolutuetan aritu badira. Deialdiaren barruan, Udalak ondoko kiroletako taldeei diruz lagundu die: atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, beisbola, futbola, areto-futbola, gimnastika erritmikoa, patin gaineko hockeya, padela, patinajea, pilota erreminta, eskupilota, piraguismoa, igeriketa, igeriketa hegatsen, tenisa eta waterpoloa.

Era berean, gizarte-intereseko **49 ekitaldi**, ikuskizun eta jarduera lagundu ditu diruz, hiriko 35 entitatek eta elkartek antolatutakoak. Laguntzak, guztira, 189.411 euro izan dira, eta ondoko kiroletako federazioek egindako jarduerak finantzatzera bideratuta daude: hipika, judoa, saskibaloia, patinajea, beisbola eta softbola, taekwondo, pilota, tiro olinpikoa, mahai-tenisa, karatea, gimnastika, urpeko jarduerak eta errugbia. Iruñeko hainbat klubek eta entitatek ere diru-laguntza jaso dute, ondokoek zehazki: Oberena, Donibane, Anaitasuna, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Unión Ciclista Navarra, Beste Iruña, Peña Ciclista El Gesto edo Iruñeko Kirol Ehiztarien eta Arrantzaleen Elkartea.

Besteak beste, ondoko entitateekin sinatu dira **hitzarmenak**, haien jarduerak diruz laguntze aldera: Boscos Txapelketarekin, Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioarekin eta Nafarroako Igeriketa Federazioarekin. Udalak, era berean, beste hainbat hitzarmen sinatu ditu, Osasuna Fundazioarekin, S.D.C. San Antoniorekin, Club Deportivo Xotarekin eta Induráin Fundazioarekin.

Diru-laguntzetarako aurrekontuak	2006	2007	2008	2009
Kirol afizionatuarendako diru-laguntzak	152.000	173.821	173.000	173.000
Federazio-ligetan parte hartzen duten taldeendako diru-laguntzak	308.392	370.116	370.000	370.000
Kirol-emanaldi -ikuskizun eta -jardueretarako diru-laguntzak	170.774	196.484	196.000	196.000
Hezkuntza- eta kirol-entitateendako diru-laguntzak, kirol-instalazioetarako	159.999	338.855	201.000	143.767
Guztira	791.166	1.079.276	942.008	882.767

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

Halaber, **ANEFIDE** elkartearekiko hitzarmenak aukera ematen die 65 urtetik gorako pertsonen ikastaroetan parte hartzeko, jarduera fisikoaren bidez mugikortasuna berreskuratzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko. Proiektua 2006-2007ko ikasturtean jarri zen abian, 250 bat parte-hartzaile ditu, eta 8-9 gimnasiotara joaten dira. AEDONA-Nafarroako Kirol eta Aisiako Entitateen Elkartearekin beste lankidetzak hitzarmen bat sinatzen da, bertan elkartutako entitateek egiten dituzten kirol-, olgeta-, kultura- eta aisia-jardueren antolaketa, finantzatzeko aldera. Jarduerak haur, gazte, adineko eta etorkinei zuzenduta daude. AEDONAK, halaber, 2009an, hileko bonoak eskaini ditu; horien bidez, klubetan bazkide ez direnek AEDONAKo elkartearen instalazioetan sartzeko aukera dute urtea bukatu arte.

Iruñeko Udalak **kirol-instalazio sare bat** dauka, eta hor bi kirol-instalazio mota daude: erabilera irekikoak eta erabilera arautukoak. Azken horiek dira deialdi honen xede. Instalazioak ahalik eta egokien erabiltzeko, Udalak Udal Kiroldegiak Birmoldatzeko Plana egin du. Plana 2009an abiarazi da eta hobekuntzak Azpilagañako, Arrosadiko, Sanduzelaiko eta Arantzadi Kirol Hiriko instalazioetan egin dira. Udalak, guztira, 2.976.335 euro inbertitu ditu, zati bat Toki Inbertsiorako Estatuko Funtsaren barruan. Planaren barruan, datozen urteotan, beste kirol-instalazio batzuk berrituko dira.

Arrosadiko eta Azpilagañako kiroldegiak 1986an eraiki ziren eta, bieran, 2009an, ia esku-hartze berbera egin da: galdara-aretoa berritu eta eguzki-plakak jartzea, aldagelak eta komunak aldatzea, barnealdeko eta kanpoaldeko zurajelanak aldatzea, argiteria aldatzea eta fatxadak konponketak egitea. Azpilagañan, era berean, erabat aldatu da eraikinaren estalkia eta zenbait konponketa egin dira kantxako zoladuran. Sanduzelain, lanak galdara-aretoan, fatxadak, sarrerako ateetan, kantxan eta aldageletan egin dira. Horrez gain, sabaileiho berri bat jarri zen, bi eraikinak batzeko. Azkenik, Arantzadi Kirol Hirian, indarrean dagoen araudira egokitu dira igerileku estaliko instalazioak.

Kiroldegiak, klubak, ikastetxeak eta bestelako kirol-elkarteak eskura daude. Eskaintza barruan Arantzadi Kirolgunea, eta Arrosadiko, Azpilagañako, Ezkabako, Ermitagañako, Arrotxapeko, Sanduzelaiko, Mendillorriko eta José María Iribarren kiroldegiak daude. Kiroldegiok erabilera arautuko instalazioen artean egoetaz gain, berariazko erabilera-arabide bati lotuta ere badaude eta, kasuen arabera, prezio bat ordaindu behar da erabiltzeagatik.

2009an eraikitzeaz bukatu den beste kirol-instalazio bat Caparrosoren Errota da, XI. mendeko eraikina, eta birgaitu da Piraguismoko Udal Eskolaren egoitza izateko. **Caparrosoren Errota** XI. mendean eraiki zen, Goi Erdi Aroan.



>Kirol elkarteekin hitzarmenak sinatzeko ekitaldia



3.3.3. Hezkuntza

Hezkuntza eta Gazteria Alorrek hainbat ikuspegitatik lantzen du hezkuntza. Alde batetik, bere hezkuntza-zentroak bultzatzen ditu, esate baterako, Joaquín Maya Musika eskola, Catalina de Oscáriz Arte eta Lanbide Eskola eta Haur Eskolak. Bestetik, hainbat hezkuntza-programa bultzatzen ditu ikastetxeei eskaintzeko: irakurzaletasuna bultzatzea, antzerki-lantegiak, Etor zaitez Iruñia ezagutzera, mendi-diapositiben emanaldiak, Zuhaitzaren Eguna, literatura- eta komiki-lehiaketak, ikasleen bisitak Gayarre Antzokira eta Guraso Elkarreendako prestakuntza. Hirugarrenik, laguntza-deialdiak egiten ditu liburuak eta materiala erosteko, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko, eta gurasoendako prestakuntza-jarduerak finantzatzeko. Azkenik, Udaleko beste alor batzuekin elkarlanean, lanean dihardu eskola-instalazioak eta -zerbitzuak sortzen diren beharretara moldatzeko; hartara, obrak egiten ditu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan (Ikastetxe Publikoak modernizatzeko zenbait urtetarako II. Plana), eta ikastetxeak mantentzeaz eta zaintzeaz arduratzen da.

Joaquín Maya Musika Eskolak egoitza berria inauguratu du, 2009/2010eko ikasturtean. Kale Nagusitik Chinchilla jeneralaren kaleko eraikin batera lekualdatu zen; aipatu eraikina 1900. urtekoa da, eta estilo modernistaren eraikin adierazgarria da, Iruñean. Udal-eskola berriak 35 musika-ikasgela ditu, guztiak intsonorizatuak, bai eta entsegu-kabinak eta musika irakasteko zerbitzu moderno batek behar dituen baliabide guztiak ere. Auditorio handi bat dauka, halaber, Mariano García Zalba izenekoa, Musika Akademiaren sortzailearen omenez; izan ere, akademia hura egungo musika-eskolaren ernamuina izan zen. Udalaren ekimenez sortu zen, 1986an, Oinarrizko Musika Kontserbatorio gisara. Adin guztietako 915 ikasle ditu, eta 24 instrumentu jotzen ikasteko eskolak ematen dira. Horrez gain, musika modernoari, antzinakoari eta entzunaldiari buruzko ikastaro monografikoak ere antolatzen ditu, eta ikasle guztiei aukera ematen die Eskolako bandetako batean aritzeko edo hainbat kontzertu eta lehiaketatan parte hartzeko.

Catalina de Oscáriz izen berriarekin ekin zion ikasturteari, 2009an, **Arte eta Lanbide Eskolak**. Iruñeko pintore baten izena da, zeina XVI. mendeko bigarren herenean familiaren

lantegi batean aritu baitzen. Beraz, Errenazimentuko artista izan zen eta, garai hartako oso emakume artista gutxi egin da ezagun.

Udal-eskola honetan, urtero 100 ikaslek naturaletik ikasten dute marrazkia eta pintura lantzen, eta norberaren dimentsio estetikoa garatzen, artearen historiara hurbilduta. Horrez gain, beste hainbat ikaslek parte hartzen dute hiru hilean behin egiten diren ikastaro monografikoetan: biluziaren inguruko apuntea, erretratu pintatua edo irudiaren azterketa, adibidez. Iazkoan, lehen aldiz, ikasleek beren lanak ikusgai jartzeko aukera izan zuten Ziudadelako Arma Aretoran antolatutako erakusketan. Erakusketak 2004tik 2008ra eskolako ikasleek egindako ehun bat lan bildu zituen.

Iruñeko Udaleko Haur Eskolek abuztuaren 17an heldu zioten ikasturte berriari. 101 hezitzaile aritu ziren, hiriko 12 haur-eskoletan banatuta. Guztira, 1.024 haur joaten dira haur-eskolelara. Haur gehienak (382) 24 eta 32 hilabete artekoak ziren. 294 ume 11tik 17 hilabetera bitartekoak ziren; 180, 18tik 23 hilabetera artekoak, eta kopururik txikiena bularreko haurren artean zegoen (4 eta 10 hilabete artekoak), 168 umerekin.

Gaur egun, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen zerbitzu publikoa 0 eta 3 urte arteko haurrendako 12 ikastetxex osaturik dago (Haur Hezkuntzako lehen zikloa). Hauek dira Udaleko haur-eskolak: Milagrosa, José María Huarte, Donibane, Rotxapea, Izartegi, Egunsenti, Mendebalde, Haurtzaro, Mendillorri, Printzearen Harresi, Hello Rochapea eta Hello Azpilagaña. 2010ean, Buztintxuriko Haur Eskola erantsiko zaie. Iruñeko Udala, halaber, lanean ari da Milagrosan haur-eskola bat egiteko; zehazki, Galle orubea izandakoan eraikiko da.

Umeek beren bizitzaren lehen hiru urteak ematen dituzte haur-eskoletan. Eskolek inguru egokia eskaintzen diete haurrei, haien nortasun-alderdi guztiak garatzeko, haien eskura jarrita hala langile egokiak nola espazioen, materialen, giroen eta ordutegien antolamendu egokiena. Era berean, haur-eskolek badituzte haur bakoitzaren ongizate emozionala eta garapen kognitiboa sustatzen dituzten proposamenak eta, aldi berean, inguruko gizartea eta kultura kontuan hartzen dituzte.

*Arte eta Lanbide Eskolak Catalina de Oscariz izen berriarekin
hasi zuen 2009 ikasturtea*

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria



> Musika eskola berriaren fatxada modernista

Haur-eskolen lanari aitorpena etorri zitzaion Haurtzaro Udaleko Haur Eskolak matematika ikasteko egindako Educación matemática y buenas prácticas izenburuko lana argitaratzearen bidez.

Irakur dezagun! Iruñeko Udalaren programa bat da, eta bere xedea belaunaldi berrien artean irakurzaletasuna bultzatzea da; hartara, topaketak antolatzen ditu haur-literaturako idazleekin eta irudigileekin, bai eta ahozko narrazio-saioak eta irakasleendako mintegiak ere. Programa 1996. urtean abiarazi zen, eta Iruñeko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ematen da, gaztelaniaz eta euskaraz. 2008-2009ko ikasturtean, 9.127 ikaslek hartu zuten parte programan eta, hasieratik, 105.000 ikasle baino gehiago aritu dira. Programak hiru jarduera mota eskaintzen ditu: irakasleendako mintegiak, ahozko narrazio-saioak eta topaketak haur-literaturako idazleekin.

Udalak, bestalde, **antzerki-lantegiak** bultzatzen ditu, ikastetxeak tresna egokiz hornitzeko eta, haien bidez, ikasleek komunikazio-gaitasun handiagoak, eta bereziki ahozketasuna,

eskura ditzaten xede harturik. Eskolak Nafarroako Antzerki Eskolako hamar irakaslek ematen dituzte, betiere eskola-orduetan. Edukiak ikasleen adinera egokituak daude, eta jolas dramatikoak eta txotxongiloen bidezko dramatizazioa eskaintzen dira: jolas dramatikoak eta dramatizazioa, Lehen Hezkuntzako 1. mailako haurrendako, eta txotxongiloen bidez eginiko dramatizazioa, Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurrendako. 2008-09ko ikasturtean, 29 ikastetxe publiko eta itundutako 85 taldek parte hartu zuten.

Etor zaitez Iruña eta hiri senidetuak ezagutzera programa 1984-85eko ikasturtean abiarazi zen eta, batez beste, hiriko ikastetxe publikoetako eta itundutako ia 2.000 ikaslek parte hartzen dute. 1999az geroztik, 15.000 ikasle inguru aritu dira programa honetan. Bi ibilbide eskaintzen ditu hirian Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle-taldeendako, Iruñeak mendez mende izan duen bilakaera eta, egun, bizi duen egoera ezagutzeko. 5. mailako ikasleek gain, era guztietako talde interesatuek ere parte har dezakete udal-programa honetan, ikasleak ez badira ere, Iruñekoak zein Iruñetik kanpokoak izan.



› Eskolako haurren bisitak Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak ikusteko, autobus geltoki berrian

Era berean, hiriaren beste alderdi bat eta bertako kultura ezagutzera emateko, **erraldoiak eta buruhandiak ikustera joateko bisita gidatuak** antolatu ziren, Kultura Alorrarekin elkarlanean; bisitak, lehen aldiz, konpartsak autobus-geltokian duen egoitza berrian izan dira. Ikasleak 1996an hasi ziren Iruñeko Erraldoi eta Buruhandien Elkartearen egoitza bisitatzen, eta joan den ikasturtean, sekulan baino haur gehiagok ikusi zituzten, 34 ikastetxetako 55 bisita izan baitziren.

Udalak 1988tik hona antolatzen du **mendi-diapositiben emanaldia**, kirol hori 14 eta 30 urte bitarteko gazteen artean sustatzeko. Mendigoizaleek beren proiektagailuak eramaten dituzte, igo dituzten mendi nagusiak, erabilitako baliabideak eta teknikak eta topatutako zailtasunak azaltzeko.

Beste behin ere, **Zuhaitzaren Eguna** ospatu zen; oraingo honetan, Ave María, Patxi Larrainzar eta La Compasión-Escolapios ikastetxeek parte hartu zuten. Kontzientziazio-eguna da, non xedea ikasleak ohartaraztea baita, hiri iraunkorragoa izateko eta hiri-ingurunea gehiago zaintzeko beharrari buruz. 15 ikaslek 30 zuhaitz-ale landatu zituzten.

Landaketa zein auzotan egin eta bertako ikastetxeak aukeratzen dira, haurrek zuhaitzak nola hazten diren ikus dezaten eta landatzen duten aleaz ardura daitezen.

Ingurumenarekin ere lotuta, Hezkuntza eta Gazteria Alorrak **txalupaz ibiltzeko doako ateraldiak** antolatu ditu lehen aldiz, 2009. urtean, Argaren ibai-ekosistema ezagutzeko. Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta, ateraldiak eskola-orduetan egin dira. Hona jardueraren helburua: ikasleei Arga ibaiaren gaineko ezagutza erraztea eta, aldi berean, ibaiak duen garrantziaz kontzientziaztea.

Beste behin ere, Hezkuntza eta Gazteria Alorrak haurrendako eta gazteendako lehiaketak antolatu zituen. Horrela, Udalak **ipuin eta komikien haur-lehiaketen deialdiak** egin zituen, gaztelaniz eta euskaraz. Horien xedea Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloko ikasleek egindako literatur lanik hoberenak saritzea da. 608 lan jaso eta, haietatik, kategoria guztietan 24 saritu ziren. Alorrak, era berean,

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

laguntza eman zion Udalak antolatzen duen gazteendako Literatur Lehiaketari, non hamalau lan saritu baitziren, narrazio laburrean eta poesian, gaztelaniaz eta euskaraz. Lehiaketan 122 lan aurkeztu ziren. Eguberrietan, ohiko jaiotza-lehiaketa egin zen. Beste alor batzuekin elkarlanean, **Iruña marraztu** lehiaketa antolatu zuen. Urtero, hiriko txoko bat proposatzen du haurrek huraxe marraz dezaten; edo Imajinatu literatur lehiaketa. Lehiaketak ondoko gaiari buruz idaztea proposatu die ikasleei: zer gertatuko litzateke estralurtar emakumezko bat Iruñera iritsiko balitz, hark Paris 1789an bisitatu zuenez geroztik gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna nola bilakatu den jakiteko, kontuan hartuta urte hartan “Gizakiaren eta Herritarren Eskubideak” aldarrikatu zirela? Ez haurrek idatzia, baina bai haiendako pentsatua, Udalak, 2009an, Haurrendako antzerki-testuen XVIII. lehiaketaren deialdia egin zuen, bi kategorietan: gaztelaniaz eta euskaraz. Lehen saria 2.200 euro izan ziren, bai eta obraren antzezpena ere.

Ikasleen bisitak, Gayarre Antzokira programa etorkizuneko ikusleak hezteko xedea hartuta egiten da, haien zentzu kritikoa eta estetikoa lantze aldera. 2009an, guztira, 26 ikastetxetako 1.301 ikaslek egin dute bisita.

Bigarren urtez, Iruñeko Udalak teknologia berrietan prestatzeko programa bat abiarazi du Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetako Guraso Elkarteen bitartez, ikasleen gurasoei zuzenduta. Hona, besteak beste, Udalak programa honekin eskuratu nahi dituen xedeak: alfabetatze digitala sustatzea, gurasoen eta seme-alaben arteko haustura digitala murriztea, ikastetxeen eta familien arteko komunikazioa hobetzea, teknologia berriak erabilita, eta haurren babesa etxean hobetzea. Eskaintzaren barruan hainbat ikastaro zeuden, ondokoei buruz: haurren babesa Interneten, Internetek ikasteko eskaintzen dituen baliabideak, blogen eta webguneen sorrera, argazki digitalak, etab. 2009an, 338 lagunek parte hartu dute programan eta, guztira, 396 ordu eman dira. Gurasoendako, halaber, Familia eta ikastetxea, elkarrekin ikasten jardunaldiak egin ziren eta 300 lagun aritu ziren. Bi egunez, izan ere, familiek eta profesionalek ideiak, esperientziak eta espektatibak partekatu zituzten, seme-alaben eta ikasleen hezkuntza hobetzeko.

Udalak berak **udal-laguntzak** ematen ditu programa horietako batzuk osatzeko. Adibidez, Irakur dezagun programarekin batera, deialdi bat egiten da ikastetxe publikoek ikasmaterial suntsikorra eta eskola-liburutegietarako liburuak eros ditzaten; diru-laguntza/ikaslea erlazioa, zehazki, 4,70 euro eta 8,36 euro dira, hurrenez hurren. Guraso Elkartei dagokienez, kontusail bat dago, gurasoendako prestakuntza-jarduerak eta ikasleendako eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko eta jarduera ludikoak zein elkarte horien kudeaketa- eta funtzionamendu-

gastuak finantzatzeko. Udal-alor honek, halaber, Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako eskolaz kanpoko jarduerak eta jardura osagarriak egiteko diruz lagundu zuen. Udalaren helburua haurren irakaskuntza-kalitatea hobetzeko ekimenak bultzatzea da, jardura osagarriak eginez, eta ikastetxeetan curriculumari lotutako edukien garapena sustatzea. Horrela, eskolaz kanpoko jarduerak, kirol-, kultura-, hizkuntza- eta musika-arlokoak izan, ikasle askoren eskola-jardunaldiaren osagarri dira eta adingabeen garapena sustatzen dute.

Programak	Erabiltzaileak
Irakur dezagun!	18.974
Antzerki-lantegiak	1.813
Etor zaitez Iruña ezagutzera (Iruñeko Lehen Hezkuntzako ikasleak) (Beste batzuk)	2.120 2.847
Mendi-diapositiben emanaldiak	910
Ikasleen bisitak, Gayarre Antzokira	1.301
Guraso Elkarreak teknologia berrietan prestatzea	338
Guraso Elkarreak prestatzea	4.395
Ipuin eta komikien literatur lehiaketa	608
Zuhaitzaren Eguna (landatzea) (marrazki-lehiaketa)	115 362

Diru-laguntzak	Ikasleak	Kopurua
Material suntsikorra (Iribarren)	9.276 1.103	78.976
Liburutegiak (Iribarren)	9.276 1.103	45.179
Eskolaz kanpoko jarduerak (Iribarren) (pribatuak)	9.276 1.103 10.270	197.733
Guraso Elkarreen jarduerak	32	49.877
Guztira	-	371.765



> Buztintxuriko Haur Eskola

Aurreko urteetan bezala, 2009an ere, NUPekiko lankidetzahitzarmena sinatu da **IX. Udako Ikastaroak** garatzeko. Aurrekontuak 60.000 egiten du. Era berean, Iruñeko Udalaren eta Ikasketa Klasikoen Espainiako Sozietatearen Iruñeko Ordezkaritzaren arteko lankidetzahitzarmena sinatu zen, 5.500 euroko zenbatekoaz, Iruñeko Antzerki Grekolatindarraren gazte-jaialdia garatzeko.

Udako hilabeteetan eskola-jarduerarik ez dagoenez, Udalak obrak egiten ditu ikastetxeetan. Gaur egun, abian da **Hiriko ikastetxeak modernizatzeko zenbait urtetarako II. Plana**, 2008an abiarazitakoa. Plan hori Udalak ikastetxeetako instalazioak eta azpiegiturak behar berrietara egokitzeko egiten dituen obrek osatzen dute, betiere udal-eskumenen barruan: ikastetxeak mantendu, zaindu eta modernizatzea. Izan ere, horrela Udalak ikastetxeak modernizatzearen alde egiten du, ikastetxe publikoetako hezkuntza-zerbitzuan kalitate mailarik gorenak lortzen laguntzeko. 2009an, 10 obra egin dira hiriko 9 ikastetxetan, haietako batzuk Toki Inbertsiorako Estatuko Funtsaren barruan. Esperientzia pilotu gisa, 2009ko urrian, Iruñeko Udalak zazpi ikastetxetako patioak ireki zituen asteburuetan eta jaiegunetan, jendeak erabil zitzen. Udal-langileak arduratu ziren patioak irekitzeaz, eta barrutien garbiketaz, berriz,

kaleak garbitzeaz arduratzen den enpresa; garbiketa gaueko ordutegian egin zuen. Iruñeko Udalak barrutien argiztapen artifiziala berrikusi eta argiak piztu eta itzaltzeko erloju programagarri bat jarri zuen, halakorik ez zegoen tokian.

Hiriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eraikinekin lehentasunez eta gehienbat hezkuntza-zerbitzua eman behar badute ere, 80ko hamarkadatik hona ikastetxeek bestelako bizitzari ekiten diote, behin eskolak bukatutakoan. Horrela, ikasgelak, kanpoaldeko pistak, gimnasioak, erabilera anitzeko aretoak eta ekitaldi-aretoak elkarrekin eta taldeei uzten zaizkie, jarduerak koste apalagoan egin ditzaten.

Aurrekontua	10.273.323
Haur eskola (eraikinak)	2.740.571
(Erakunde Autonomoa)	5.550.298
Joaquín Maya Musika Eskola	3.984.020
Catalina de Oscáriz Arte Eskola	133.745
Eskolako programak eta diru-laguntzak	612.011
Guztira	23.292.968

Ikastetxe-erabiltzaileak (matrikula)	2009
Ikastetxe publikoak	8.974
Haur-eskolak	1.024
Joaquín Maya Musika Eskola	915
Ikastaro monografikoak	32
Catalina de Oscáriz Arte Eskola	100
Hiruhilekoan behingo lantegiak	100

Inbertsioak	2009
Ikastetxe publikoak	3.037.165
Haur-eskolak	2.740.571
Joaquín Maya Musika Eskola	2.176.632
Guztira	7.687.311

3.3. Gizarte-ongizatea, kirola, hezkuntza eta gazteria

3.3.4. Gazteria

2009an, Iruñeko Udalak sentsibilizazio-kanpaina bat bultzatu zuen gazteen artean, alkoholak eta drogek dakartzaten arriskuez ohartarazteko eta bizitza-aztura osasungarriak sustatzeko. **Ez zaitzatela harrapatu. Urrundu zaitez alkoholetik eta drogetatik**, horra kanpainaren leloa. Hona, besteak beste, kanpainak abiatutako ekintzak: altueran 3,5 metro zituzten edalontziak paratzea hiriko hainbat tokitan, barnealdean zenbait gazte giltzapetuta zeudela, lurrean eta paretetan biniloak jartzea, zorabiorako poltsak banatzea, hitzaldiak, informazio-panelak, eta zabor-educiontzietan eranskailuak itsastea. Hori guztia, alkoholak eta drogek eragiten dituzten bakardadea eta arazo fisikoak gogorarazteko.

Urte bukaeran, halaber, Udalak iragarri zuen gazteek aisiarako toki berri bat izanen dutela: **autobus-geltoki zaharreko** beheko solairua, hiri-plaza estalia bihurtuko baita. Udalaren asmoa da hiriaren erdigunean dagoen plaza estali horretan eserlekuak, landaredia eta paperontziak jartzea, hiriaren esparru irekietan daudenen antzera. Plaza barruan, esparru desberdinak izanen dira eta hiriburuko haur-jolaserako eremurik handiena kokatuko da, bai eta ping-pong mahaia, futbolinak eta beste joko batzuk ere.

2009an, eutsi egin zaie gazte askoren agendetan jadanik finkatuta dauden hainbat programari, esaterako, **udako kanpaldiak**, zeinek 500etik gora toki eskaini zituzten Santoñan (Kantabria) eta Belagua-Irunberrin, edo jarduera anitzeko asteburuak, abuztuko, iraileko eta urriko asteburuetan egindakoak. 2009ko edizioan, zehazki, bi lagunendako hegaldia, arborismoa, puenting eta mendi-zintzurak jaiste eskaini zituzten Azkoitia, Kakueta, Murillo de Gállego, Izaba, Bidarra, Baztan eta Bertizen banatuta. Halaber, hamargarren urtez jarraian, **elur-erraketekin** egindako txangoak eskaini dira, urtarriletik martxora bitarteko asteburuetan. 2009an, hain zuzen, 400 toki eskaini ziren (2008an baino 120 gehiago). Horrela, 2.230 iruindar gazte gozatu dute dagoeneko Udalak elur-erraketekin antolatutako ibilaldiez. 2009an, txangoak Belagua, Auritz, Zuriza, Aralar, Orbaizeta, Abodi, Urbasa, Orreaga, Ezkaurre eta San Martin harrian egin dira.

Candanchún **eski alpinoan** egindako kanpainak ekarri zuen berritasuna; izan ere, 14 eta 18 urte bitarteko 185 nerabek parte hartu zuten, lau igandez. Proposamenari, batez beste, 8,6ko nota eman zioten parte-hartzaileek berek.

Kulturaren arloan, nabarmendu beharra dago **Iruñeko gazteendako literatur lehiaketaren XIX. edizioan** izandako partaidetza handia, bai poesian bai narrazio laburrean, eta Gayerre Antzokira jende asko joan izana. Luces de Bohemia lanaren eta beste lan klasiko batzuen egokitzapenez gozatzeko. Obra horiek gazteek antzestu zituzte Antzerki Grekolantindarraren Jaialdiaren barruan.

Hezkuntza eta Gazteria Alorrak, gainera, enpresa-sortzaile **gazteek enpresak** sortzea sustatu du **diru-laguntzen** bidez. Horrela negozio berriak sortu dira: besteak beste, ile-apaindegi bat, belar-denda bat, haurtzaindegi bat, zapata-denda bat, zurgindegiak, estetika-zentroak, bai eta erreminta-, scooter elektrikoak, argazki- eta elikadura-dendak ere. Diru-laguntzen zenbatekoak, guztira, 95.666 euro jo zuen; kopuru hori % 62 handitu da, 2007an emandakoaren aldean. Diru-laguntzen helburua gazteen artean auto-enplegua sustatzea eta lanean sartzeko baldintzak hobetzea da.

Gazteei zuzendutako deialdi gehiago ere badira, esaterako, **gazte-jarduerak egiten dituzten entitateendako laguntza** -73.500 euroz hornituta, 2009an-, edo haurrei eta gazteei zuzendutako denbora libreko eta aisiako jarduerak garatzen dituzten hiriko entitateendako laguntza -180.000 euroz-. Iruñeko Udalak, horrela, gazteen parte-hartzea eta gazte-elkarteen jarduerak sustatu nahi ditu.

Gaztediaren Etxea (40. urtemuga)

Guztira, 82.101 gaztek erabili dituzte Iruñeko Udaleko Gaztediaren Etxeko zerbitzuak, horren 40. urtemuga izan den 2009. urtean. 14tik 30era urte bitarteko gazteek hainbat zerbitzu erabili dituzte, esate baterako, aretoen lagapena, zibergela, orientazio psikologikorako aholkularitza, lege- eta ikasketa-aholkularitzak, ikasketa-gela eta bidaiategia. Horrez gain, jende gazteak foro, ikastaro, erakusketa, kultura-jarduera eta abarretan ere parte hartu du. Gaztediaren Etxeak, izan ere, gazteek berek sustatu eta kudeatzen dituzten ekimenak egiteko tokia baita eta, aldi berean, zerbitzuak, argibideak eta tokien erabilera eskaintzen ditu, doan eskaini ere, gazteek berariaz dituzten beharrei arreta egiteko gazteei beraiei interesgarri zaizkien arloetan, hala nola ikasketetan, enpleguan, aisia eta denbora librean eta etxebizitzan, besteak beste. Udal-zerbitzu honek darabilen lan-kontzeptua gazteen erabateko autonomian eta haien borondatezko parte-hartzean datza.

Zerbitzurik eskatuena aretoen lagapena izan zen. Taldeek gauza askotarako erabiltzen dute Gaztediaren Etxea: antzerkirako dantzarako, simulaziozko edo estrategiazko mahai-jokoak egiteko, eta, batez ere, musikarako; izan ere, 20 pop-rock talde ari baitira bertan. Ondotik, zibergela erabili zuten gehien. Interneten sartzeko aukera eskaintzeaz gain, beste gauza asko egiteko parada ere ematen du: lanak ofimatika-programetan egitea, inprimaketak egitea, eskaneatzea, etab.



Argibideak ematea Gaztediaren Etxearen eginkizunik garrantzitsuenetakoa da; horrexegatik dauka Gazteendako Informazio Bulego bat. Kontsulta-gaien artean, ohikoena prestakuntzari lotutako kontuak izan ziren, eta gero, bestelako kontsultak, adibidez, Gaztediaren Etxeko zerbitzuei, bestelako udal-jardueri, aisiari eta bidaiei, bekei eta lanari buruzkoak. Informazioa Etxetik haratago irits dadin, Udalak Berriemaileak izeneko programa sustatzen jarraitzen du. Aipatu programan hiriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako eta Ikastetxe Nagusietako ikasleen artean bikoteka izendatutako berriemaileen sare bat aritzen da. Berriemaileek beren ikastetxetarako informazio aukeratu eta erakutsi egiten dute, bai eta ikaskideen eskariei erantzun ere. Joan den ikasturtean, 68 berriemaile izan ziren, 34 ikastetxetan.

Etxeak 72 ikastaro antolatu ditu, gai askotarikoak: aerobica eta tonifikazioa, areto-dantzak, dantza latindarrak, makillajea, hasiberriendako sukaldaritza, eta senda-belarrak eta aromaterapia, etab. Goizez ere ikastaroak eman dira eta hori

gauza berria izan da. Horrez gain, Gaztediaren Etxeak 31 kultura-ekitaldi ere abiarazi ditu; horietako batzuk, lehen aldiz, ingelesez. The world today in English izenburupean, bost hitzaldi eman dira, bostak ere ingelesez, Batxilergoko gazte ikasleei zuzenduak.

2009an, lanean jarraitu du Boluntarioendako Bulegoak (Zangoza kalea, 30). Bitartekaritza-lana egiten du, elkarreek pertsona boluntarioetan dituzten beharrak estaltzeko; horrez gain, arlo horretan ari diren erakundeetako eta elkarreetako boluntario-eginkizunaren aitortza ere sustatu du, boluntarioak prestatzeaz gainera.

Gazteen prestakuntza sustatzeko, ikasketa-gelaren ordutegia zabaldu eta finkatu egin da. Horrela, berrogeita hamarren bat ikaslek aholkularitza jaso dute, ikasterakoan dituzten zailtasunei nola aurre egin jakiteko. Eta ildo horrekin bat, psikologia praktikoa lantzeko hainbat lantegi egin dira, gazteei norbere gaitasunak hobetzen laguntzeko.

PARTE-HARTZAILEAK

Jardun-ardatza	Jarduera	2006	2007	2008	2009
PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA	Aholkularitzak	65	522	757	781
	Ikasketa-gela	-	-	63	443
	Ikastaroak, mintegiak eta lantegiak	2.008	1.979	2.030	2.162
AISIA ETA DENBORA LIBREA	Bidaiaategia	31	187	208	220
	Gazteendako informazio bulegoa	3.027	3.159	3.265	4.172
	Aretoen lagapena	32.431	37.850	51.136	50.492
	Ziber-ikasgela	6.642	10.831	12.847	13.505
	Wifi erabiltzaileak	-	-	-	1.728
	Aisialdia atari zabalean	1.338	1.442	1.655	1.606
	Kultur jarduerak, erakusketak eta foroak	4.575	4.564	5.428	5.720
KULTURA ETA PRESTAKUNTZA	Talde jarduerak eta beste hainbat jarduera	321	1.981	2.219	2.878
ELKARTASUNA	Kontsultak Boluntarioendako bulegoan	594	628	558	830
	Boluntario lanari buruzko mintegi-jardunaldiak	102	123	126	147
Guztira		51.134	63.266	80.292	84.684

DIRU-LAGUNTZAK

Ardatza	Jarduera	2006	2007	2008	2009
Enplegua	Enpresa-sortzaile gazteak	31.500	32.700	33.500	95.666
Parte-hartzea	Gazteentzako jarduerak	58.605	61.155	66.005	60.834